

Ramon Labaien

Euskal Telebista, hutsean sortua

Erroak zahar

Hedabideak berri



Argitaratzaile:

Andoaingo Udala
Euskararen Normalkuntzarako
Lansaila
Goikoplaza, z/g
20.140 Andoain
☎ 943 300 830

Argitalpenaren arduradun:

Jon Unanue



Ekoizle:

Erroitiz, b.m.
Hedabide eta iragarbideak
Dr. Huizi kalea, 15-1. esk.
20.140 Andoain
☎ 943 300 732

Ekoizpenburu:

Jon Ander Ubeda

Erredaktore:

Nerea Azurmendi

Diseinatzaile:

Maddi Trutxuelo

Argazkiak: Jesús Mari Pemán,
Sara Santos, J. I. Unanue, DEIA
egunkariko Dokumentazio
Artxiboa (Angel Ruiz de Azua),
Diario Vasco, Zabalik.

Irarkola: Igara (Donostia)

ISBN: 84-921732-3-8

Lege-gordailua: SS-0711/04

700 aleko argitaraldia egin da
2004ko uztaila

Andoaingo Udalak XVI. Rikardo
Arregi Kazetaritza Sariaren
Ohorezko Aipamenaren kariaz
bereziki egindako argitalpen
osagarria.

© Andoaingo Udala

Guztiz galarazita dago
argitaratzailearen baimen idatzirik
gabe argitalpen honen aldakirik
egitea edo hori berrargitaratzea
edozein bitartekoz baliaturik.

Eskerrona: argitaratzaileak bere
esker ona adierazi nahi die
argitalpen hau osatzeko laguntza
eman duten erakunde eta lagun
guztiei, bereziki, Gipuzkoako
Ahaldu Nagusiaren Kabineteari,
Eusko Jaurlaritzako Kultura
Sailari, Tolosako Udalari, DEIA
eta El Diario Vasco egunkariei,
Zabalik astekariari eta Mikel
Arregi Aranburu eta Aitor
Amutxastegi jaunei.



**Ramon
Labaien**

Aurkibidea

XVI. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2003/04

Epaimahaia	4
Ohorezko aipamena	6
Miren Azkarate	7

Erlojupekoa	8
-------------------	---

Ramon Labaieni elkarrietzeta	10
------------------------------------	----

Luis A. Aranberri, 'Amatiño'	32
Martin Ibarbia	33
Jose Antonio Maturana	34
Andoni Areizaga	35
Jose Mari Otermin	36



ANDOAINGO UDALA
Euskararen Normalkuntzarako Lansaila



Rikardo Arregi
Kazetaritza Saria



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO



Rikardo Arregi Kazetaritza Saria

Epaimahaia

Jose Antonio PÉREZ GABARAIN
(Tolosa, 1944).

Diktaduraren garaian sindikalgintzan eta auzolangintzan jardun ondoren, Frankismoaren osteko lehenengo udal demokratikoan alkate hautatu zuten, 1979. urtean, Euskadiko Ezkerra alderdiko hautagai izan zelarik. Geroztik tokiko politikagintzan jardun du, bai Udalean (hirugarren agintaldia du oraingoa) bai Gipuzkoako Batzarre Nagusietan bi legegintzalditan, egun PSE-EE-ko ordezkari gisa. Beraz, bostgarren urtea du epaimahaiburu gisa.

RAKS-eko epaimahaiburu: 1995/96, 1996/97, 1997/98, 1998/99 eta 2003/04.



© J. I. Unanue



Allande BOUTIN MANDAGARAN
(Vernon - Normandia-, 1958)

Paris 1 - Panthéon-Sorbona Unibertsitatean Zuzenbide publikoan lizentziatua, doktoradutzako

lehen urtea eginda du alor horretan (DESS). Gainera, Zientzi politikoei dagozkien ikasketak egin zituen Pariseko Zientzi Politikoen institutuan. Baina, aspaldidanik, kazeraritzza izan du jardunbide nagusi eta hainbat hedabidetan aritu da euskaraz, frantsesez edota gazteleraz. Gaur egun, France 3 Euskal Herria-Pays basque telebistan dihardu, eta beste hainbat hedabidetan lankidetzaz eskaini ohi du ere.

RAKS-eko epaimahaikide: 1996/97, 1997/98, 1998/99, 1999/00, 2000/01, 2001/02, 2002/03 eta 2003/04.



Laura MINTEGI LAKARRA
(Lizarra, 1955).

Historian lizentziatua Deustuko Unibertsitatean eta Psikologian doktoratua (EHU). 1981etik aurrera Hizkuntza eta Literatura

irakaslea Euskal Herriko Unibertsitatean. Euskal PEN Klubaren sortzaile eta lehendakaria. Zenbait sari literarioen irabazle eta sariketa literari ugaritan epaimahaikide, oso ezagunak dira argitara eman dituen narrazioak, eleberriak batik bat. Hamaika hedabidetan jardun du kolaboratzaile gisa: Anaitasuna, Egin, Elgacena, Susa, Argia, Ttu-ttua, Egunkaria, Gara, Jakin, Berria, Hegats, Egin Irratia, Bizkaia Irratia, Euskadi Irratia, Bilbo Hiria Irratia, Euskal Herria Irratia.

RAKS-eko epaimahaikide: 2000/01, 2001/02, 2002/03 eta 2003/04

© Jesús Mari Pemán

© Jesús Mari Pemán

© Jesús Mari Pemán



**Ana
URKIZA
IBAIBARRIAGA**
(Ondarroa, 1969).

Kazetaritza
lizentziatua
(EHU),
Hizkuntzalaritza
diplomata
(UNED) eta
Enpresa
Komunikazioan
eta Komunikazio

komertzialean masterra (ESC-Toulouse).
DANOBAT Taldeko komunikazio arduraduna
izan zen hainbat urtez, eta gaur egun, Euskal
Idazleen Elkarte Idazkari Kudeatzaile da eta
Deustuko Unibertsitateko irakasle. Hainbat
komunikabideetan kolaboratzen du, besteak beste,
Berria eta *Deia* egunkarietan. Literatur idazle gisa,
obra zabala du argitaratua ipuin eta poesia
generotan eta Haur eta Gazte literaturan ere.
Literatur itzulpenak ere argitaratu ditu.

RAKSeko epaimahaikide: 2000/01, 2001/02 eta 2003/04.

© Jesús Mari Pemán



**Jose Inazio
BASTERRETXEA
POLO**
(Galdakao, 1959).

Kazetaritza
doktore (EHU),
gaur egun EHuko
Gizarte- eta
Komunikazio-
Zientzien
Fakultateko
irakasle titularra
da. Ezagunak dira

komunikazioa azterkizun duten bere ikerketa
lanak: *Arerioen dualitatea kartel politikoan*
(EHU, 1996); *Semiotika eta Masa-Komunikazioa*
(UEU, 1997); *Komunikazioaren eta Informazioaren*
Oinarriak (UEU, 1997); *Kultura-aniztasuna eta*
gizarte-komunikazioa (UEU, 2002); *Aurkari*
ikusezina, identitateaz eta gizarte-komunikazioaz
(Alberdania, 2003). Hedabide askotan jardun du
kolaboratzaile gisa, baita bere lanak ezagutzera
eman ere.

RAKSeko epaimahaikide: 2002/03 eta 2003/04

© Jesús Mari Pemán



**Mikel
IRIZAR
INTXAUSTI**
(Ormaiztegui, 1954).

Enpresa
Zientzietako
ikasketak egin
zituen Madrilgo
Universidad
Complutense-an.
Arrasate Press-en
artikulugile
(1988-1998,

Arrasate Telebistan hainbat saioaren editore eta
aurkezle (1990-1994) eta Arrasate
Komunikabideak elkarte sortzaile eta
lehendakari izan zen (1991-1993). Gainera,
Euskal Telebistaren *Hitzaro* eta *Lengua Viva*
saioetan aurkezle izan ondoren (1995-2000),
Goiena multimediararen sortzaile eta zuzendari
nagusiz izana da (1999-2001). Beste hainbat
hedabideetan kolaboratzaile gisa dihardu ere.

RAKS-eko epaimahaikide: 2002/03 eta 2003/04

© Jesús Mari Pemán



**Nekane
GOIKOETXEA
AGIRRE**
(Deba, 1970)

Euskal Filologian
lizentziatua eta
Euskal Kulturaren
Diplomata
Deustuko
Unibertsitatean,
Hizkuntzen
Psikodidaktikan
doktoregai

EHUn, Enpresa pribatuan hizkuntz
normalizatzaile gisa jardun ondoren, 2000. urteaz
geroztik Andoaingo Udaleko euskara teknikari
eta arduradun gisa dihardu eta, horrenbestez,
azken urte hauetan -iazkoan izan ezik- bera dugu
Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko idazkari eta
arduradun tekniko.

RAKS-eko epaimahaiko idazkari: 1999/00, 2000/01, 2001/02
eta 2003/2004.

XVI. Rikardo Arregi Kazetaritza Saria 2003/04

OHOREZKO AIPAMENA

Ramon Labaien

AZKEN ERABAKIA (*)

(...)

Kanpoko gaietan euskal ikuspegia izatea eta sustatzea txalotu dugu arestian, ikuspegi propioa, beregaina, Euskal Herrian sortua, euskaraz taxutua. Zalantzarik gabe, hori egin ahal izateko autozentratze bidean dagoen hizkuntza-komunitatea behar dugu izan. Zeregin horretan, telebistaren indarra argia da.

Bestalde, kazetaritza enpresek benetako profesionalizazioak ekar litzakeen arriskuak beren gain hartzeko konpromisoa hartu dutela ikusi dugu aurtten. Hedabide berriak sortu dira, komunikazio-informazio fakultate berri bat irekiko da udazkenean eta kazetagitza sakontzeko kongresua abian da. Euskarazko hedabideen eskaintzak nola kontsumoak gora egin du, urte luzeen emaitza inondik ere.

Duela 22 urte, 1982ko maiatzean onartu zen 5/1982 Legea, Euskal Irrati-Telebista erakunde publikoa eratzeari buruzkoa, eta 1982ko abenduan, eguberrietan, eskaini zen ETBren lehen emisioa. 22 zenbakiak ez du berez magia handirik, baina aurtengo oparotasunak berak argitzen du zenbakia. Aurtengo kemenak argi egiten dio ordukoari eta aurtengo testuinguru zailek egiten dute ordukoarekiko zubi. Horra hor Ohorezko Aipamena. Europak euskara aintzakotzat hartu nahi ez duen urtean, biribila iruditu zaigu euskara hutsez-

Sansinenea



ko telebistaren alde apostu garbia egin zuen taldea eskertzea.

Euskal telebistaren atzean, talde handi bat aurrerki dezakegu, politikoa, kazetari, tekniko, bikoizle e.a. Ez da, hala ere, orduko eguneroko ahalegin eskerga Aipamen honek saritu nahi duena. Sinismena da, irizpidea da, kementa da.

- Euskarazko etorkizunaren aldeko apostua egin izana da eskertu nahi duguna.
- Hasiera-hasieratik euskal komunitatea autozentratzeko telebistaren indarra argi izatea,
- ekimenaren bideragarritasunean izandako sinismena,
- euskararen aldeko irizpide garbiaz jokatzeari eta,
- zailtasunak zailtasun, aurrera egiteko kementa.

Izen batekin lotzen dugu momentua: Ramon Labaien da euskal telebistaren egitasmoa abiarazi aurretik aurkitzen dugun ekintzailea. Badakigu ez zela bakarrik izan, baina bera omenduz aipatu nahiko genuke momentu hartako ereduia.

XVI. edizioako Ohorezko Aipamena, beraz, Ramon Labaien Sansineneak jasoko du.

(...)

* Goain aldatu dugun testua Rikardo Arregi Kazetaritza Sariako Epaimahaiak adosturiko Azken Erabakitik hartu eta laburbildu dugu. Bertan jasotzen dira labur Epaimahaiak aintzakotzat hartu dituen merezimenduak Ramon Labaienen aldeko Ohorezko Aipamena egiteko.



Ereintzak uzta ugari eman du

Gizakioi buruz poliedrikoak garela esan ohi da. Definizio horrek norbaitekin balio badu, lagun hori Ramon Labaien da. Ikuspegi askotatik hurbildu gaitezke Euskadik autogobernua berreskuratu zuenean lehen Kultura Sailburua izan zen Ramon Labaien pertsonalitatera, guztietatik horixe aukeratu nahi izan dut berari buruz idazterakoan: Kultura Sailburua.

Hasierak beti dira zailak, are gehiago hutsetik hasita, oinarrietatik etxe osoa altxatu behar denean. Hori horrela, benetan azpimarragarria da Ramon Labaienek eta berarekin 80ko hamarkadako lehen urte haietan Eusko Jaurlaritzan izan ziren gizon eta emakume haiek egin zutena. Eta gauza asko daude gogora ekartzeko modukoak, orduan egindako ereintzak uzta ugari eman du, hori adierazteko eta adibide gisa, azken lau urte hauetan hogeitau urte bete dituzten erakundeen zerrenda luze bezain garrantzitsua aipatzea besterik ez legoke.

Orduan ideiak eta nahiak ziren eta gaur egun heldutasunera iritsi diren emaitza horietatik, guztietatik batekin geratuko naiz, hedabideekin. Ramon Labaien Sailburu zela sortu zen Euskal Irrati Telebista, herri hedabideak abian



Miren AZKARATE VILLAR
Kultura Sailburua

jarri ziren, hedabide publikoak eta euskaldunak, hogeita lau ordu euskaraz aritzen ziren lehen irrati eta telebista. Ez ziren, noski, hutsetik sortu, irratigintzaren alorra aspalditik jorratua baitzen gure artean, telebista, aldiz luberria zen. Gizartean euskal hedabideen beharra sumatzen zen, Gernikako Estatutuan gura horren adierazpena jasota dago, baina hori horretan izango litzateke, balizkoa izango zen, Ramon Labaien buru zuen lan talde batek ez balu lehen urratsa eman eta, Euskadi Irratia lehendabizi eta Euskal Telebista ondoren, ametsa egi bilakatu ez balute.

Donostiartutako tolosar handi honi buruz gauza asko esan daitezke. Herri eta gizarte honek asko zordio. Berari esker katea ez da eten, Ramon Labaien zubi dugu, zentzu askotan, Errepublikara garaiko belaunaldi handi harekin eta horrekin batera fruitu ugari eman duen eta emango duen gizona dugu. Euskaltzalea, abertzalea eta gizon zintzoa.

Erlojupekoa

© DEIA egunkariko Dokumentazio Artxiboa
(Angel Ruiz de Azua)



EITBren historia ofizialaren aurretikoa da euskal irrati-telebistarena, 1980an mamitzen hasia eta Eusko Legebiltzarrak 1982ko 20an onetsitako 'Euskal-Irrati Telebista Herri-Erakundea' sortzeko Maiatzaren 20ko 5/1982 Legeak' gauzatua, deitura horrekin argitaratu baitzen testua ekainaren 2ko Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian. Legea onartu arte, ezinezkoa zen exisistitu ere egiten ez zen erakundeari atxikitako izendapenik egitea, baina jende asko zebilen ordu-rako irrati-telebistaren inguruko lanetan, Ramon Labaien buru zuen Kultura sailaren egituran txertatuta zein beste era batzuetako tratu eta harremanen bitartez. Aurreneko ardura zuzenak Kultura sailburorde izendatu zuten Josu Zubiaurrek izan zituen, eta haren inguruan bildu ziren bat edo beste ahazteko arriskua saihesteko aipatu gabe utziko ditugun hainbat lagun...

Irrati-telebistari atxikitako aurreneko izendapena 1982ko otsailaren 13an egin zen, Josu Zubiaur, EITB sortu bitartean, Radio Vitoriako administratzaile izendatu zutenean. Artean legea onartu gabe egon arren, EITBko behin-behineko Administrazio Kontseilua apirilaren lehen egunetan

izendatu zuen Eusko Legebiltzarrak eta, egun haietantxe, besteak beste Radio Euskadi hartuko zuen eraikina erosi zuen Eusko Jaurlaritzak Bilbon. EITBren sorrera ofizialtzat har daitekeen legea Eusko Legebiltzarrak maiatzaren 20an onartu ondoren, ekainaren 30ean osatu zen aurreneko Administrazio Kontseilua, eta, handik 20 bat egunera, Josu Zubiaur izendatu zuen Kontseiluak EITBko aurreneko Zuzendari Nagusi. Egun berean, EITBra bilduko ziren Euskal Telebista (ETB) eta Eusko Irratia (EI) sozietateak sortu zituen Kultura sailak. Abuztuan, Hanburgerako bidea hartu zuten ETBko 42 profesionalek, Euskal Herrian ETB bultzatuko zuen makina ziztu bizian zebilela, erlojupeko lasterketan, begiak eta asmoak abenduaren 31n jarrita. Euskadi Irratiak aurrea hartu zion Euskal Telebistari, azaroaren 21ean hasi baitzen emititzen Donostian, Jose Mari Otermin zuzendari zuela. Abenduko lehen egunetan, aldaketak izan ziren Espainiako zein EAEko telebistetan. Madrilen, sozialisten garaipenaren ondotik, José María Calviño izendatu zuten RTVEko Zuzendari Nagusi eta Euskal Herrian, berriz, Andoni Areizagak hartu zuen Josu Zubiaurren ordezkia EITBren zuzendaritza nagusian. Areiza-



Luis Iriondo ETBko aurreneko zuzendariarekin.

beitb

euskal irrati telebis

ga abenduaren 13an izendatu zuten, eta biharamunean hasi ziren ETBren aurreneko emisio-probak, besteak beste JJ. Azurza eta Eugenio Iriondo ingeniariak prestatutako sarea baliatuz. Abenduaren 20an aurkeztu zizkion Administrazio Kontseiluari Andoni Areizagak hurrenez hurren ETBko eta Eusko Irratiko zuzendari izango ziren Luis Iriondo eta Ignazio Arregi.

Eta, abenduaren 31ko gauerdian, Carlos Garaikoetxea lehendakariaren mezua izan zen Euskal Telebista sintonizatuta zeukateknek ikusi zuten aurreneko saioa. Haren ondotik, *Rutas de Euskadi* dokumentala, *Españolizainak* marrazki bizidunak eta *Poxpoloak* saltzen zituen neskatoa filma.

Aurreneko informatiboa 1983ko urtarri-

laren 2an eskaini zuen Euskal Telebistak. Euskarazko aurreneko filma, berriz, apirilaren 21ean. Apirilean aurkeztu zuten estreinako programazio finkoa, egunean lau orduz batik bat informatiboak eta haur eta gazteei zuzendutako saioak eskaintzen zituen. Egun berean egin zen ETBko aurreneko arduradunen aurkezpena: Luis A. Aranberri 'Amatiño' informatiboetako buru, Iñaki Beobide ekoizpen arduradun, Martin Ibarbia programazio zuzendari eta Eugenio Iriondo zuzendari tekniko. Ordurako, denek zeramatzatzen hilabeteak lanean.

Une hartatik aurrera, 'aurreneko aldiz' beteriko abiada handiko martxa hartu zuten telebistak zein irratiak. Amaitua zen, alegia, erlojupeko lasterketaren zatirik gogorrena.

Euskal Telebista

hutsean sortua



Ramon Labaieni
elkarrizketa

Presaka utzi zuen txoritxoak habia

1982. urterako, lehendik ere ahoz aho zebilen kontua zen euskarazko irrati-telebistaren beharra. Haren aldeko aldarrikapena ere ozena zen euskaltzaileen artean. Baina, 80ko hamarkadaren hasieran, kasik urratu gabeko zapata berri parearen Autonomia Estatutua, 1979ko urriaren 25ean Euskal Autonomia Erkidegoko herri-tarrek onetsia eta abenduaren 18an Lege Organiko bilakatua. Hura ehuteko erabili ziren harietatik tiraka ari zen lehen urratsak egiten 1980ko martxoko hauteskundeetatik irten zen Francoren ondorengo aurreneko Eusko Jaurlaritza, Carlos Garaikoetxea lehendakari zuela.

Gainezka zeuden arduradun politikoen zein administrazio sortu berriko teknikari urrien agendak, eta dena egiteke zegoen hartan premien artean premiazkoena hautatzea ez zen lan erraza. Dena zen beharrezkoa, denak zuen lehentasuna. Eta lehenta-

sunen artean bazegoen ageriko agendetan gehiegi nabarmentzen ez zen bat: euskarazko irrati-telebista sortzea. Askoren ahotan ibiliagatik, alegia, 1983ko lehen minutuan aireratu arteko bidea nahiko isilean egin zuen Euskal Telebistak. Erabateko lehentasuna izanagatik, disimuluan-edo prestatu zuten. Ezin bestela.

1980an osatutako Jaurlaritza hartan Kultur sailburu zen Ramon Labaieni egokitu zitzaizkion gidari lanak bidaia korapilatsu hartan. Lehendakaria zuen gainetik, Jaurlaritzako gainerako sailburu eta arduradunak alboan, eta inguruan, berriz, ametsa gauzatzea ahalbidetu zuten hainbat kide. Bera izan dugu gidari aspaldikoa dirudien iragan hurbilerako bidaia honetan ere. "Egin egin behar zen, eta gauza da egin zela", dio Ramon Labaienek, egiteko hura nola egin zen argitzen hasi aurretik, orduko kontuak ohiko trebeziaz biribil-biribil laburbilduz.



Noizkoa zenuten 1980. urtean Eusko Jaurlaritza osatu zenutenek euskarazko telebista publikoa sortzeko asmoa?

Hasiera-hasierakoa. Gure lehentasun nagusietako bat euskara babestea eta bultzatzea zen, zeren eta, printzipio bezala, argi baikeneukan euskararik gabe ez zegoela Euskal Herririk. Argi geneukan, halaber, ez bazen euskarazko komunikabiderik sortzen euskarak ez ziola bereari eutsiko. Hortaz, 1980an osatu zen Eusko Jaurlaritzaren programan jasota zegoen euskara ba-

besteko sortuko zen telebistaren asmoa. Gure orduko helburu nagusi eta bakarra euskara babestuko zuen euskarazko irrati-telebista sortzea zen, gaztelaniazko katea jartzea burutik pasatu ere egin gabe. Gero sortu ziren, noski, anbizio politikoak eta horrelakoak baina, telebistaren sorreran, euskara babestea izan zen lehentasuna, eta kalean ere oso zabalduta zegoen behar hura euskaltzaleen artean.

Artean izenik ere ez zeukan euskarazko telebista hura nola sortu, ordea,

**ez zegoen batere argi legearen alde-
tik. Zeri heldu zenioten proiektua
abian jartzeko?**

Gernikako Estatutua izan zen giltza. Estatutuaren 19. artikulua, besteak beste, Euskal Autonomia Erkidegoari bere telebista, irrati eta prentsa propioa arautzeko, sortzeko eta mantentzeko eskubidea ematen zion, baina Madrilen horri ez zioten batere kasurik egiten, eta esaten zuten horrek ez zuela esan nahi gure komunikabide propioak izateko eskubidea geneukanik. Jainkoari eskerrak, Estatutu bereko klausula gehigarri batean azaltzen zen Euskal Autonomiak artean garatu gabe zegoen hirugarren kanal publikoa –Televisión Española-ren kanal autonomiko halakoa, erkidegoei kontzesio moduan utzia– kudea zezakeela. Hortaz, guk interpretatu genuen 19. artikuluan aipatzen zena ez zela hirugarren kanal hura, beste bat baizik, eta garai hartan ‘laugarren kanala’

deitu zena prestatzen hasi ginen, inori ezer esan gabe. Dena den, auzitan zegoena Espainiako legediaren eta gure legitimotasunaren arteko lehia zen eta guk, noski, legitimotasunaren alde egin genuen, nahiz eta lege gehiegi ez urratzen saiatu. Ikusten genuen, gainera, Madrilen luzamendutan zebiltzala, denbora irabazi nahirik, eta itxaron beharrean ekitea erabaki genuen, presazkoa ez ezik gobernuaren konpromiso politikoa ere bazen-eta euskarazko telebista abiaraztea.

**Zergatik, bada, horrenbesteko pre-
sa?**

Orduan dena zen hemen presazkoa, larritasun halako bat zegoen. Gaurko zirkunstantzietan, agian, beste era batera egingo ziren gauzak, baina orduan ez genekien noiz arterainokoak izango ginen. Gaur egun gobernuak sinesten du iraungo duela eta gauza formala dela, baina or-

Biografia

‘MAREXAL TXIKIA’

**Trebea eta zorrotza da Ramon Labaien gainerakoei goitizena jartzekoa. Ondo hartuko ote du opor-
rak Napoleonen kanpainen arrastoen atzetik ematen di-
tuen horrek garai ba-
teko lankideak jarri-
takoa...**

Antonio Maria Labayen euskaltzale tolosarra-
ren eta Carmen Sansi-
nenea donostiarren se-
mea, Tolosan jaio zen
Ramon Labaien
1928an. Ehun betetze-
ko lau falta zitzaizkio-



la 1994an zendu zen aita Tolosako alkate abertzalea zen 1936ko gerra piztu zenean. Gurasoek, hortaz, erbesteko bidea hartu behar izan zuten, Ramon eta Martin semeak hartuta. 50eko hamardakan itzuli zen familia Tolosara, alde egiterakoan ume ziren mutikoak gizon gazte bilakatuta. Kimikan lizentziatua, hainbat ogibide, historiazaletasuna, politika eta afizio ugari landu eta uzartu ditu orduz geroz-



Biografia



tik, eta jarduera betean jarraitzen du egun ere alor horietan guztietan.

Ramon Jauregui sozialistarekin batera, 1979ko apirilaren 3an egin ziren aurreneko udal hauteskunde demokratikoetara heldu aurretik Donostiako udala kudeatu zuen behin-behineko organoko buru izan zen eta 1980an, berriz, diktaduraren ondoren lehenengo Eusko Jaurleri-tzako Kultura sailburu,



besteak beste EITBren sorrera bultzatuz. Kargua 1983an utzi zuen, bere betiko alderdi EAJren Donostiako alkategai izateko. Alkategai eta, hauteskundeak irabazi ondoren, alkate 1987 urtea arte. 1986tik 1990ra Eusko


duan ez genekien zenbat iraungo zuen sistemak. Tartean, besteak beste, 1981eko otsailaren 23ko estatu-kolpe saiakera izan genuen. Nork esan zezakeen ez zela besterik izango? Presa genuen gauzak egiteko eta geneukan diru apurra gastatzeko. Eta presazkoenetakoa euskarazko telebista martxan jartzea zen.

Noiz hasi zineten horretan lanean, eta zein ardura egokitu zitzaizun zuri aurreneko urrats haietan?

Gobernua osatu bezain laster hasi ginen lanean, nahiz eta orduan, Kontzertu Ekonomikoa sinatu arte, xentimorik gabe eta Arabako Foru Aldundiak uzten zigun diruarekin ibili. Komunikabideen zein euskararen inguruko politika Kultura Sailaren ardura zen eta, horrenbestez, nire. Beste ardura batzuk ere bazituen Sailak, noski, baina aipatu ditudan horiek ziren estra-tegikoak. Gainerako gaitan, hamabost egunetan likidatu nituen transferentziak. Madrilgo gobernuan nuen solaskideak ondo ezagutzen zuen Euskal Herria, abertzaleak zituen familian, eta ez genuen batere arazorik izan kulturaren alorreko gai arruntak

gureganatzeko. Horrez gain, problema handirik gabe bideratu genituen euskalduntzearen ingurukoak ere, AEKrekin akordioa lortuz eta HABE sortuz. Asko lagundu zidaten alor horretan AEK-k eta Euskal Herrian Euskarazekoek, aitortu beharrekoa da hori ere. Sortu genuen antzerki eskola, sortu genuen Euskadiko Orkestra Sinfonikoa... Garcia Egocheaga sailburuak, alegia, nazio bat bere buruaren jabe egiten zenean bi gauza egiten zituela esan ohi zuen: orkestra nazional bat eta airelinea bat. Nik egin nuen niri egokitzen zidana, orkestra, eta airelinearen kontuan ere izan genuen kanpotik proposamenen bat, nahiz eta azkenean ez ezertan gauzatu. Funtsezkoa, ordea, irрати-telebista abian jartzea zen,

baita konplikatuen ere,





eta legitimotasun printzipio hartan oinarrituta berehala jarri ginen lanean. Gaia oso hurbiletik jarraitzen zuen lehendakariarentzat eta gobernu osoarentzat, hain zuzen, erabateko lehenetasuna zeukan telebista marxan jartzeak. Kontzertu Ekonomikoa sinatu eta gure dirua edukitzen hasi ginenean, 1981eko aurrekontuetan gorde genuen irri-telebistarako aurreneko diru-saila, disimulu antzean, ofizialki ez baitzegoen telebista sortzeko asmorik. Ordurako, dena den, bazebilen taldetxo bat lanean Lakuako sotoetan egokitutako bulego batzuetan. Nik, egoera hartan, tokatu zitzaizkidan erabakiak hartu nituen.

Zein erabaki?

Proiektuak bi alde zituen. Bata, teknikoa. Bestea, telebistaren edukiei eta hura egingo zuen jendearen ingurukoa. Teknikaren aldetik ez genuen problema handiegirik izan. Kontu teknikoek Josu Zubiaur arduratu zen,

eta lan izugarria egin zuen. Alor horretan, lehenengo lana tresneria erostea eta telebista bat teknikoki nola egiten zen erakutsiko zigun norbait aurkitzea izan zen. Hainbat gestio egin ziren BBCrekin, Televisión Españolaekin eta besterekin, baina horietako inork ez zigun eskaini guk behar genuen laguntza, eta azkenean Alemaniako Studio Hamburg konpainiakoei egin ziguten proposamen egokiena, eta haiekintxe hasi ginen alde teknikoa lantzen. Jende serioa zen, oso profesionala. Tresneria gehiena Amerikan erosi genuen, garai hartan zegoen onena. Bien bitartean, irri-telebista eskola halako bat sortu genuen jendea trebatzen hasteko, eta Donostiako Prim kaleko zoko batean bikoizketa lanetan ere hasi ginen, bikoiztaileak prestatzen eta kanpoan erosita-ko aurreneko lanak euskaratzen. Hori egiten genuen artean, dena den, Madrilén telebistaren inguruan antolatzen ziren bilera

Biografia

Legebiltzarreko kide ere izan zen.

Betidanik gogoko dituen berunezko soldadu txikiak, onak badi-ra, banan-banan egiten dira, ez guztientzat molde bera erabilita. Bera ere ez da trokelean egindako gizasemea, are gutxiago askorentzat balio duen moldetik ateratako politikaria. Alferrikako lana da, hortaz, esku artean izan duen orori bere estiloa eman dion



alde eta ertz askoko Ramon Labaien deskribatzen saiatzea. Besteak beste, bera urrats bat aurrerago edo inork espero ez duen bidetik ibiliko delako beti, izen hori merezi duten marexalen modura. □




guztietara joaten nintzen, hemen egiten ari ginenaz ezertxo ere esan gabe.

Alde teknikoak bideratzen hasita, zein telebista eredu zeneukaten gogoan?

Irizpide nagusia euskarazko telebista egitea zen. Lehendariak eta neronek argi geneukan hori, nahiz eta mundu guztia ez izan iritzi berekoa alderdiaren barruan. Telebista euskara babes-teko sortu nahi genuen eta, hortaz, euskarazkoa izan behar zuen. Horixe izan zen erabaki garrantzitsuena eta, aldi berean, zailena. Hortik aurrera, Espainiako telebista kenduta ez geneukan bestelako erreferentzia handirik. Ezin da ahaztu Euskal

Telebista izan zela TVEren monopolioa hautsi zuen aurrenekoa eta, hortaz, bakar-bakarrik ari ginela lanean, nahiz eta uneren batean, geroxeago, gu hasi ginenean telebistarik ez zuten katalanekin batera ere aritu kanpoan programak erosten eta horrelakoetan. Kanpoko esperimentzietan dagokienez, Galesen bazegoen bertako telebista bat eta, British Council-ek gonbidatuta Londresera egitekoa nintzen bidaia baten aitzakian, telebista hura ezagutzeko ahaleginak egin nituen BBCren aurrean. Horretarako bide guztiak itxi zizkidaten, ordea, eta azkenean joan ere ez nintzen egin Londresera. Hortaz, gure errefe-



rentzia nagusia Espainiako telebista izan zen. Beste alor batzuetan ere gauza bera gertatu zen. Transferentziak administrazio zentralaren eskemarekin jaso genituen, eta gure administrazioa ere haren antzera osatu genuen. Telebistara itzuliz, erreferentzia nagusia Espainiakoa izan zen, hemengo jendea ere hura ikustera ohituta zegoelako. Jendeak ikusiko zuen telebista normalizatu bat egin nahi genuen, bere informatiboekin, filmekin, telesailekin, umeentzako saioekin... Euskal Telebista, hortaz, Espainiako telebistaren kalko bat izan zen.

UCDrekin bolada batez telebistaren arduraria izan zuen



Rafael Arias Salgadok, bilera batean, *Los ángeles de Charlie* ematen zutenean 22 milioi ikusle izaten zituztela esan zidan eta TVE2ko saio kulturalak, berriz, 200.000 gehien jota. Oso gogoa izan nuen hori. Dena den, eurek egiten zutena baino okerragoa izango zen telebista egitea zaila izango zela ere esan zidan Arias Salgadok.

Zuek lanean jarraitzen zenuten, baina euskal irrati-telebistaren sorrera babestuko zuen legerik ere ez zeneukaten artean.

Ez, bat ere ez. Legea 1982ko maiatzean onartu zen Legebiltzarrean eta, ordurako, guk gauzak nahiko aurreratuta geneuzkan.

Eta zer zioten gainerako alderdiek horri buruz?

Gaiari buruzko borroka politiko handirik ez zen izan. EAJk oso posizio erosoak zuen Legebiltzarrean, eta ez geneukan beste inoren botoen beharrik gure proiektuak aurrera ateratzeko. Kontatu ere, ahalik eta gutxien kontatzen genien. Baina legea bozkatu zenean, esate baterako, inork ez zuen kontrako botorik eman. Noizbehinka eskatzen ziguten argitasunen bat, eta baten batek esaten zuen ez zegoela konforme emandako erantzunarekin, baina,

82. urtea

Aldaketaren urtea

1981eko otsailaren 23ko estatu-kolpe saioaren itzalean hasi zen 1982a.

Futbolzaleek, baina, izan zuten non kontsolatu. Realak segidako bigarren Liga irabazi zuen, eta Naranjitok Munduko Futbol Txapelketa ekarri zuen. Torrespaña inauguratu berrian, Espainiako telebistak nahikoa lan zuen Mundialaren ingurukoak prestatzearekin, Euskal Autonomia Erkidegoan prestatzen ari zena erreparatzeko... Euskal Telebistak ezin izan zuen kontatu Marino Lejarretak Espainiako Itzulia irabazi zuela, Espainia NATOn sartu zela, Euskadiko Orkestrak aurreneko kontzertua eman zuela, Ertzaintzaren lehen promozioa irten zela, Aita Santua bisitan izan genuela, Ruiz Mateosi Rumasa kendu ziotela edota ETA-pm erakundea formalki desegin zela. Ezta, urriaren 28an, aldaketa agindu zuen PSOEk hauteskundeak irabazi zituenik ere. Gauzak aldatzeko, ordea, oso gutxi falta zen, eta 1983ko berriak euskaraz entzun ziren, telebistan eta irratan. □

Iritzia



Arantxa URRETABIZKAIA

John Wayne euskaraz

Maiatz honetan bertan, Turkiako telebista publikoak ordu erdi-ko saioa eskaini du kurdoen hizkuntzan, lehen aldiz historian. Gerta-kizun honen berri ematen zuten hedabideetan gauza bat azpimarrazten zen: ikus-entzule kurdoen harridura, mirespena, sinesgaiztasuna.

Antzeko zerbait sentituko zuten sekula santan zaldi bat ikusi gabeen zeuden indiarrek.

Bada, horixe gertatu zitzaigun euskaldun askori ETB jaio zenean. Ordurako entzuna genuen telebista euskaraz (beti dago batek botatzen dituen belarrak jateko hartzen dituen norbait), baina elkarrizketak ziren, dokumentalen bat, berriak...

Fikzioa, ordea, ez genuen sekula santan euskaraz entzun. Jakin bagenekien Iparramerikako indiarrek ez zutela, berez,



tira, guk egin egiten genuen. Akaso problema gehiago izan genituen alderdian, bestelako asmo batzuk ere bazeudelako. Jendea hautatzerakoan ere izan ziren tirabirak, eta guk Studio Hamburg en esku utzi genuen batik bat prozesu hori. Une hartan euskaraz aritzeko gai ziren kazetari euskaldun alfabetatuak aurkitzea zein zaila zen kontuan hartuta, alde horretatik hautaketa-prozesua nahiko profesionala izan zela iruditzen zait.

Beste eragile batzuen iritzia izan al zenuten kontuan? Sortu al zen gizarte telebistaren inguruko inolako eztabaidarik?

Ez genuen horren inguruko kezka handirik izan. Gu apostolikoak ginen, misio bat geneukan. Akaso tontoak izan ginen, baina fede handiz jardun genuen,

arrazoia gurea zela sinestuta. Irrati-telebistaren bidez euskara kalera ateratzea zen gure xedea, eta presazkoa zen hori egitea. Kritikaren batzuk egon ziren, bai, batez ere hizkuntza ereduari buruzkoak, eta geneukan presaren inguruko eztabaidaren bat ere izan zen garaiko hedabideetan, baina, oro har, guk ikusten genuen euskaldun jendea gogoz zegoela euskarazko telebista ikusteko. Agian, gaurko zirkunstantzietan, beste era batera jokatu litzateke, baina orduko zirkunstantziak zirenak ziren, eta gu ere ginenak ginen. Garai-koetxea eta biok, gainera, bastante diktadoreak... Talde txiki eta oso kohesionatua ginen, eta erabakiak zirt edo zart hartzen ziren, hausnarketa handirik gabe eta gauzak gehiegi konplikatu gabe.

Ekinean-ekinean, Legea eskuan zeneukatela baina irrati-telebistarako fundamentuzko aurrekonturik gabe, gero eta hurbilago zegoen, sei bat hilabetera, emititzen hasteko unea: 1982tik 1983ra bitarteko gauerdia. Nolako izan zen azken txanpa hura?

Aurrekontuarena argitu nahi nuke lehenik... 1981ean telebistarako aurrekontu-sail txiki bat egokitu zen, baina 1982an ez genuen telebistarako aurrekonturik aurkeztu. Nik argi esan nuen ez nuela aurrekontuaren mugarik onartuko, gastatuko zela gastatu behar zena. Bromatzat hartu zuten, baina halaxe egin

nuen. 1983an aurkeztu genuen aurreko urteko aurrekontua Legebiltzarrean, fakturen likidazio modura. Gauzak, ordea, zuzen egin ziren, xentimo bat ere des-pistatu gabe. Pedro Luis Uriar-teren Ogasun eta Ekonomia Sailak lagundu zigun dirua be-har bezala eta legea urratu gabe kudeatzen. Irudimena gogotik erabilita, hori bai... Diru hare-kin, esan bezala, merkatuan zeu-den ekipo onenak erosi geni-tuen eta, Studio Hamburgen aholkularitzapean, 1981ean Iu-rretako zentroa eraikitzen hasi ginen. Jendearen prestakuntza ere garrantzi handiko lana izan zen une hartan. 1982ko abuz-tuan Euskal Telebistaren erre-dakzioaren hazia izango zen ka-zetari talde bat bidali genuen Hanburgera telebista nola egi-ten zen ikastera. Aurkitu ge-nuen autobus merkeenean bida-li genituen... Ni, zorionez, he-gazkinez joan nintzaian bisitan. Proiektuaren atal nagusiak -ekipoak, egoitza eta jendea-martxan eta oso aurreratuta zeu-den 1982ko udazkenerako.

Eta, orduantxe, gobernu aldaketa Espainian. Izan al zuen horrek era-ginik telebistaren proiektuan?

1982ko urrian egin ziren hau-teskunde orokorrak
P S O E k

irabazi zituen gehiengo osoz, Fe-lipe Gonzalezek hartu zuen UCDko Calvo Soteloren lekua, eta guk orduan sortu zen transi-zio egoera aprobe txatu nahi izan genuen azken urratsak egiteko. Aurrekoekin bezala, tratu atse-gina izan genuen PSOEek Espai-niako telebistaren arduradun izendatu zituenekin, baina haiek ere ez zuten gure proiektua bultzatzeko batere asmorik, eta guk gurearekin jarraitzen ge-nuen. Jose Maria Calviñok hartu zuen telebistaren ardura, eta nik esan nion agian hurrengo urtea-ren erdialdera jarriko genuela martxan telebista, gehiegi zehaz-tu gabe. Gezur galanta esan nion, noski, abenduaren 31ko gauerdian hasteko erabakia har-tuta geneukan-eta. Ez zen izan garai hartan esan behar izan nuen gezur bakarra. Ez geneukan erabakia aldatzeko batere asmo-rik. 'Bidal dezatela nahi badute Goardia Zibila', esan genuen.

Bazegoen, ordea, aurretik egindako ahalegin guztiak arris-kuan jarri zituen arazo bat, emi-titzeko behar zenituzten frekuen-

Iritzia

Arantxa Urretabizkaia



pelikuletan bezala hitz egiten. Baina, tira, nola-hala jakinarazi zitzaigun hizkuntza arraro eta uga-riak zirela indiarrenak eta hori abiapuntu har-tuta, ez ginen harritu indiarrak euskaraz entzun genituenean. Nik bakea nahi.

Baina benetako harri-dura, oraindik ere kur-doek amestu ere egiten ez dutena, beste zerbai-tek ekarri zuen: John Wayne euskaraz entzun genuen lehen aldian lehertu zitzaigun zerbait burmuinaren erdi-erdian.

Eta bakoitzak ahal izan duen bezala egin dio aurre lurrikara horri. Jakin bagenekien John Waynek ez zuela Valla-dolideko gaztelania stan-darra egiten, baina asko ez ginen eta oraindik ez gara, John Wayne eta bere lankide asko eus-karaz entzuteko gauza. Gaztelaniaz, inglese-z, frantzesez, bai, baina ez euskaraz.

Horrelako traumak eta haundiagoak sortu zituen gudan diktadu-rak. Ez zenuten pentsa-tuko ba debalde pasatzen duela batek bere gazte-ria diktadura baten atza-parretan. □



Iritzia



Xabier MENDIGUREN BEREZIARTU

Ondo gogoan dut nola etorri zitzaidan Iñaki Beobide garai hartan Euskaltzaindiak Foru Aldundiko Jauregian zeukan egoitzara, eta irratitelebista-eskola bat antolatu behar zela nola esan zidan, eta bertako euskararen eta itzulpenaren irakas-kuntzaz ardura nendila eskatzera.

Hitzetik hortzera eskaria egin eta era berean erantzun. Garai hartako estiloa zen. Arazoei bizkor eta egoki soluzioa aurkitzea zen kontua. Labaien jaunak zezenari adarretatik heltzen dionaren itxura ausarta zuen, eta estilo hori katean hedatu zen gureganaino. Gure jitea artisautzakoa areago zen akademikoa baino.

Martuteneko Itzulzaile Eskolako zuzendari nintzen une hartan eta bertan metatzen ari ginen esperientzia ez ezik, zenbait ikasle ere

tzien ingurukoa. Ezinbesteko zenbaki haiek eskuratzeko izan zenituzten komeriei buruzko bertsio ugari eman dira. Argituko al da inoiz nola lortu zenituzten klabeak?

Arazo larria izan zen hura, bai. Guk aurreneko emisioaren data jarrita geneukan, ekipoak erosita, jendea lanerako prest, eta Iurretako eraikina ere aurrera zihoan, baina hura guztia alferrikeri zen zenbaki haiek gabe. Hain zuzen ere, zein frekuentzian emititu jakin behar genuen beste telebista batzuei enbarazu ez egiteko eta gure sarea antolatu ahal izateko. Zenbaki haiek, hirugarren kanalerako gordeta zeudenak alegia, gure emisio-ekipoetan sartu behar genituen, eta ekipoak Estatu Batuetan zeuden, zenbakien arabera programatzeko zain. Madrilen, noski, ez zizkiguten zenbakiak ematen, eta denbora aurrera zihoan. Kosta ahala kosta lortu behar genituen klabeak. Eta azkenean lortu genituen baina, garai hartako hainbat kontutan bezala, hobe argitasun gehiegirik ez ematea. Sobre bat ibili zen tartean, eta nahiko merke atera zitzaigun. Gainera, horrek guztiak preskribatu du, ezta? Kontua da lortu genituela zenbakiak, programatu genituela tresnak eta ekarri genituela ekipoak, Irungo aduana-agentzia baten laguntzaz, eskola-materiala izango balitz bezala. Muga-zergak ordaindu gabe egongo dira oraindik.

Eta heldu zen azkenean eguna...

1982ko Gabon zahar gaueko programazioa sinbolikoa izan zen eta Euskal Herriko leku askotan ikusi ere ez zen egin, baina une aparta izan zen benetan. Saio xumea izan bazen ere, hitza betetzeko eta aurreneko pausoa emateko egina, hunkigarria izan zen, eta irudia asko zaindu genuen. Aurreneko aurkezleak Elene Lizarralde eta Mari Jose Intxausti izan ziren, euskaldun urbanoaren irudia ematen zuten neska gazteak. Nik pentsatu nuen jendeak estimatuko zuela euskarari ukitu rustikoa kentzea. Gauzak aldatzen ari baziren ere, orduan, artean, euskaldun askok gutxietsita eta baztertuta zeukaten euskara, gaztelaniaren aldean bigarren mailakoa edo arlo-tekeria izango balitz bezala. Egun nagusitasun halako bat ematen du euskaraz mintzatzeak, baina orain dela hogeitau urte hori ez zegoen horren argi, eta horrexegatik hautatu genuen irudi jakin hura. Bestela, lehen-dakariaren mezua eta gauza gutxi gehiago eman ziren. Oso gogoan dut, gainera, ikurriña izan zela besteen gainetik nagusitu zen irudia. Gauzak, ordea, nahiko konplikatuak izan ziren. Iurretako zentroa amaitu gabe zegoen, eta emisioa garaje batean gordeta zegoen unitate mugikor batetik egin zen, kamioi baten barrutik. Nire beldur nagusia hura manejatzen jakingo ote zuten izan zen... Eta bazekitela ikusi nuenean, nire lana amai-

tzear zegoela iruditu zitzaidan. Guk egin geneukan egin beharrekoa, telebista martxan jar-tzea, eta hortik aurrerakoak telebistaz zerbait zekitenek egitekoak ziren.

Maiz aipatzen duzu irudiaren garrantzia. Irudiaren aldetik, zerekarri zion telebistak Euskal Herriari?

Irudiak sekulako garrantzia du, eta hemen ez gara horretaz jabetu. Kultura Sailaren ardura zen, esate baterako, irudiarekin lotura zuzena duen protokoloa. Hor tesi bat dut nik, protokoloa oso garrantzitsua dela estatuentzat —ondo daki hori Elizak...— eta, batez ere, estaturik ez duten herrirentzat. Gure helburua izan zen lehendakariari, protokolo aldetik, estatuburu estatusa ematea, nahiz eta estatuburu ez izan, eta horrek teatroa egitea eskatzen badu, ba egiten da eta



kito. Gogoan dut nola, behin, lehendakaria Venezuelara joatekoa zen. Esan ziguten han domina halako bat emango ziola bertako estatuburuak, eta guk ez geneukan zer eman haren pare geratzeko. Gau hartan bertan Cañok egin zuen dekretua, nik dibujatu nuen gurutzea eta, whiskia edanez, atera zitzaidan lema. Zilarrezko ertza zuen gurutze gorri bat zen, erdian Gernikako arbola berdea zuena. Lema, berriz, *Beti zutik* izan zen. Pare bat eman ziren, eta hortxe geratu zen ekimena, nahiz eta irudiaren aldetik eta jendea instituzioekin lotzeko mediorik merkeena eta eraginkorrenetako izan kondekorazioak eta horrelakoak. Eta telebistak ere garrantzi handia izan zuen irudi aldetik, hemen zein kanpoan. Errioxan, Gaztelan edota Kantabrian luze gabe hasi ziren euskal telebista hartzen, eta jakin zuten bazela euskaraz mintzatzzen zen herri bat eta, gainera, herri horrek botere eta kemen seinale zen telebista ere bazuela. Alderdi zentzua izan beharrean herri zentzua izango bagenu, gehiago zainduko genituzke gauza horiek.

Ettxera itzulita, zer nolako harrera izan zuen estreinako saio hark? Nola hartu zuten Madrilén ia isilpean sortutako telebista hura?

Hemen jendea emozionatu egin zen. Madrilén, berriz, saioaren berri izan zutenean jakin zuten guk bageneukala gure telebista,

Iritzia

Xabier Mendiguren



eraman genuen Donostiako Prim kaleko telebista/irradi-eskola jaio berrira.

Ilusioa, hutsetik zerbait eraikitzen ari ginen kontzientzia, irakasleek genekien hoberena eman nahia eta ikasleek mundu berri bat aurkitu eta aitzindari izatearen erantzukizuna sentitzen zuten. Hemengoak eta kanpokoak ginen irakasleak, eta ogibide eta adin guztietakoak ikasleak, etxekoandre ugari barne.

Estariak, aurkezleak, bikoizketariak... prestatzea zen gure erronka, baina ilunabarretan egiten genuen hura lana baino areago iruditzen zait jolasa, orain, mende-laurden bat geroagoko behotikik begiratuta. Ramonen gidaritzapean, gozamenaz eta ausardiaz egindako lan hura pixkanaka mamituz joan zen denontzat. Beste herrialde eta hizkuntza batzuentzat egunerokoa zena, guretzat ere egingarri ikusten genuen eta egia bihurtu zen ametsa. □

“**Madrilén, aurreneko saioaren berri izan zutenean jakin zuten guk bageneukala gure telebista, baina ez zuten deusik esan, hitzik ere ez”**

“**Euskarazko irrati-gintzan bazegoen eskarmentua eta bazeuden aurrez trebatutako profesionalak. Irratiaren sorrera telebistarena baino askoz errazagoa izan zen”**



baina ez zuten deusik esan, hitzik ere ez. Handik aste batzuetara, programazioa egonkortzen hasi ahala, piztu ziren euskararen inguruko eztabaidaren batzuk. Euskararen aldeko hautua ez ezik, euskara batuaren aldeko apustua egin genuen, eta zenbaitek esaten zuten euskara hura ez zela ulertzen. Kritika zorrotzenak Bizkaitik etorri ziren, baina guk bagenekien jendeak, azkenean, batere arazorik gabe ulertuko zuela hura ere, eta euskarazko telebista ordurako indar handia zuten ikastolek-eta behar zuten osagarria izango zela.

Eta jendea berehala ohitu zen J.R. eta horrelakoak euskaraz entzutera.

Bai, Texasko hura... Horren harira, dena den, esan behar da ez zitzaigula batere erraza gertatu programak erostea. Hasierako momentu haietan, bagenekien ez genuela gure ekoizpen propioak egiteko modurik izango, eta aurreko hilabeteetan materiala pilatzen eta euskaratzen ibili ginen, zer eman edukitzeko. Traba asko jartzen zizkigu-

ten, ordea, eta inork ez zigun ezer saldu nahi. Marrazki bizi-dun bulgariarrak, Europa ekialdeko herrialdeetako filmak eta horrelakoak erosten genituen, haietxek saltzen zizkigutelako. *Dallas*, berriz, J.R. hil zelako erosi ahal izan genuen. Izan ere, telesail hura Espainiako telebistak ematen zuen. Halako batean hil zen J.R. eta bazirudien hortxe amaituko zela telesaila. J.R., ordea, berpiztu egin zuten, eta bigarren atal hura ez zuen erosi Espainiako telebistak. Guk bai.

Telebistaren aldean, irratiaren abian jartzea erraza izan zela dirudi.

Irratiak eta telebistak helburu berbera zuten, euskara babestea, eta ente berekoak ziren, baina irratiaren abian jartzea telebista sortzea baino askoz ere errazagoa izan zen. Lehenik eta behin, euskarazko irrati-gintzan bazegoen eskarmentua, Herri Irratiaren inguruan batik bat, eta, hortaz, ondo prestatutako profesionalak ere bazeuden. Teknikoki ez zen horren konplikatu, eta hizkuntzaren inguruko auzia bi

kate desberdin sortuta konpondu genuen. Hor bai, hor kontzesio bat egin genuen. Irratiaren sorrera askoz ere erlaxatuagoa izan zen, dena den.

Telebista abian jarri eta berehala utzi zenituen Eusko Jaurlaritzan zeneuzkan ardurak. Atzera begiratuta, gus-tura al zaude orduan egindako lanarekin eta gauzak egiteko moduarekin?

Telebista hasi eta gutxira utzi nion Kultura Sailburu izateari, alderdiak Donostiako alkatetzarako aurkeztea eskatu baitzidan. Ordurako, gainera, egina neukan telebistan egin beharrekoa, eta kulturaren alorreko gainerakoak ere bideratuta zeuden. Aurreko batean esan dudanez bezala, nik ez nuen uste politikariok telebistan muturra sartu behar genuenik, nahiz eta gero hori gertatu den. Gure lana hura mar-txan jartzea zen, eta nik lan hori, beste askoren laguntzaz, eginda utzi nuen. Gauzak egiteko moduarekin gustura ote nagoen? Bada, oraingo argitan ikusita, agian gutxiegi hitz egin genuen jendearekin, gauzak argia-go egiteko modurik izango zen, baina orduko egoera eta gaurkoa ezin dira konparatu. Seguruenik, behar baino diru gehiago gastatu genuen, dozenaka hanka-sartze egin genituen... ‘*El consejero improvisa*’, leporatu zidan batek orduko hartan, eta nire erantzuna ‘*todos los días y a todas horas*’ izan zen, horrelako-xeak izan baitziren gauzak: neu-

rri handi batean, eta ezinbestean, inprobisazioan eta boluntarismoan oinarrituta. Baina, Euskal Herriari inprobisazioa eta boluntarismoa kentzen badizkiozu, zer geratzen zaigu? Ahal genuena egin genuen eta ginen bezalakoak ginen baina, oro har, uste dut gauzak nahiko ondo egin genituela. Azken hogeita bat urteotan telebista lan izugarria egin du euskararen alde. Argi daukat lan bikain hori ez dugula politikariok egin, telebistan lanean aritu direnek baizik. Gure ardura horri bidea ematea izan zen eta, alde horretatik, oso gustura nago orduan egindako lanarekin.

EUSKARAREN BORROKA GALDUZ GERO, AKABO

Euskarak behar zituen komunikabi-deak sortzeko orduan, ikus-entzunezkoetan murgildu zineten erabat. Zergatik ez zenieten antzeko garrantzia eman idatzizkoei?

Gauza gutxi zegoelako eta jendeak euskaraz irakurtzeko batere ohiturarik ez zeukalako. Diktadura garaian erbestean landu ziren batik bat euskarazko hedabideak. Hemen, berriz, Argia eta besteren batzuk kenduta ez zegoen gauza handirik 80ko hamarkadaren hasieran. Zeudenei laguntza ematen saiatu ginen, baina orduan ez zegoen euskaraz irakurtzeko gai zen euskaldun alfabetatu askorik; liburuak ere oso gaizki saltzen ziren. Gaur egun euskarazko egunkariak eta

“Telebistak lan izugarria egin du euskararen alde. Argi daukat lan bikain hori ez dugula politikariok egin, telebistan lanean aritu direnek baizik”

“Idatzizko medioek bezeria urria zuten, eta entzuteko edo ikusteko, berriz, soberan zegoen jendea. Horregatik egin genuen ikus-entzunezkoaren aldeko apustua”

“ Miraria iruditzen zait beste edozein egunkari normalizatu baten pare dagoen euskarazko egunkaria edukitzea, herri eta eskualdeetan euskarazko aldizkariak, irratiak eta telebistak ikustea...”

euskarazko gainerako argitalpe-
nek dituzten irakurle gehien-
tsuenak 10-12 urteko neska-
mutikoak ziren orduan, ikasto-
lan euskaraz ikasten zutenak.
Hor ere, eskalafoia premiak eza-
rri zuen. Idatzizko medioek beze-
ria urria zuten, eta entzuteko edo
ikusteko, berriz, soberan zegoen
jendea. Guk ahalik eta jende
gehienaren artean zabaldu nahi
genuen euskara komunikabideen
bitartez, eta irizpide horrek bide-
ratu zuen ikus-entzunezkoen al-
deko apustua.

**Euskararen alorrean, bete al ditu zure
ustez Euskal Telebistak hasierako
asmo handi haiek?**



Euskara finkatzeko eta zabaltze-
ko orduan telebistak eragin
handiagoa izatea espero genuela
aitortu behar dut. Gaur egun
jende euskaldun asko dago, bai-
na ez dute euskaraz egiten, eta
agian gure kalkuluak baikorre-
giak izan ziren. Hizkuntza baten
berreskuratzea eta ezartzea guk
uste baino prozesu luzeagoa dela
ikusi dugu, agian bi edo hiru be-
launaldi gehiago beharko ditue-
na eta elementu ugariaren baita-
koa dena. Egun, ordukoarekin
alderatuta, euskararen inguruko
beste giro bat dago familietan,
eskoletan, komunikabideetan,
baina gauzak guk espero baino
mantsoago doaz. Dena den,
apustu hura atera zen bezala ate-
ra zen, baina egin izan ez balitz
gauzak desastre eginda egongo li-
rateke. Gaur ez daude erabat on-
do, baina urrats haiek gabe oke-
rrago egongo lirатеkeela uste dut.

**Hala eta guztiz ere, orduko urrita-
suna gogoan, zer deritzozu egun eus-
karazko komunikabideen alorrean
dagoen oparotasunari?**

Miraria iruditzen zait beste edo-
zein egunkari normalizatu baten
pare dagoen euskarazko egunka-
ria edukitzea, horrenbeste herri
eta eskualdetan euskarazko al-
dizkariak, irratiak eta telebistak
ikustea... Gazte jendeak egin du
hori, belaunaldi berriak, herria-
ren kemenak. Nik uste dut Eus-
kal Herriaren ezaugarrietako bat
herriak gauzak egiteko duen ke-
men hori dela. Hori gabe gaizki
ibiliko ginатеke.



Euskal irrati-telebista, haatik, ezin esan herri ekimena izan zenik.

Horretan ere gauzak asko aldatu dira. Gaur egungo baliabide teknologikoekin, nahiko erraza eta eskuragarria da herri mailako telebista txiki bat sortzea, prozesu guztia asko merkatu delako. Gaur hartan geneuzkan asmoekin eta zeuden baliabide teknologikoekin, baina, inbertsio handiak behar ziren, eta hori administrazioak egin zezakeen soilik. Hala eta guztiz ere, uste dut administrazioaren egitekoa herri ekimenak babestea dela, dirua ematea eta jendea lanean bakean uztea. Kultura administrazioak ez du kultura sortzen, kultura herriak sortzen du, herri jatorrak gainera, ez eliteek. Iruditzen zait, gainera, administrazioak ez duela egiten egin dezakeen guztia euskara zabaltzeko, ezta alderdi abertzaleek ere. Alde horretatik oso kritikoa naiz. Egun, konparazio batera, euskaldun alfabetatuak soberan daude alderdi aber-

tzaleen zerrendak osatzeko eta, hala eta guztiz ere, zenbat erdaldun huts sartzen dira zerrenda horietan batere lotsarik gabe? Eta izan dute euskara ikasteko astia, gero. Alderdi abertzaleen zerrendak euskaldun alfabetatuz osatzearen aldekoa naiz erabat, eta nire alderdian ere askotan proposatu dut hori.

Zuen lehentasun nagusi eta bakarra euskara babestea izan zela diozu behin eta berriro, baina euskararen erabilera politikoa ere leporatu izan zaizue agintera heldu zareten politikari eta alderdi abertzaleei. Euskara eta politika erabat bereiztea posible al dela uste al duzu?

Bereizketa hori faltsua iruditzen zait, eguneroko bizitzan, azkenean, dena delako politika. Eta ez gara aingeruak, gizasemeak gara... Euskara politikatik kanpo badago, eguneroko bizitzatik kanpo dago, fosil bat da, eta fosil baten moduan bitrina batean jartzen badugu, ez bada egunero-

“Euskararen eta politikaren arteko bereizketa faltsua iruditzen zait, eguneroko bizitzan, azkenean, dena delako politika eta gu ez garelako aingeruak, gizasemeak baizik”

“Askok nahita galdu dituzte euskararen tren guztiak, eta euren kalterako izango dela uste dut, hori espero dut, euskarak geroz eta indar handiagia baitu identitate-seinale bezala”

ko kontuetan inplikatzan, akabo. Hori da, hain zuzen, euskara desagerrarazteko gogoa dutenek nahi dutena. Gure kasuan, gainera, euskara da nortasuna ematen diguna, horren gainean erakitzen da gure identitatea. Nik uste dut euskaldun jendeak duela bere hizkuntzaren kontzeptu arkaikoa, antzinako greziarrek zutenaren antzekoa. Zein ziren greziarrak? Bada grekoz mintzatzen zirenak, eta gainerakoak *barbaroi* ziren. Zein da euskalduna? Bada euskaraz mintzatzen dena, eta bost axola non sortua den edo zein abizen duen eta nori ematen dion botoa. Euskara ez da alderdi baten identitate-ikurra, herri batena baizik, eta gaur egun, hemen, bere nortasunaren adierazgarri euskara duen herri bat ari da sortzen. Beste kontu bat da abertzaleak ez diren zenbait alderdik hasiera-hasieratik galdu zutela, nahi izan zutelako, euskararen trena. Sabinok egin zuen euskararen aldeko apustua eta, gero, gerran ibili ziren gudariek, euskaltzaileek, Jose Antonio Agirren gobernuaren dinamikak, ikastolek... Beste batzuek tren hori ez zuten hartu, eta azken hogeitaz urte hauetako trenetara ere ez dira igo. Eta nik uste dut hori, azkenean, euren kalterako izango dela, hori espero dut berderen, euskarak gero eta indar handiagoa baitu identitate-seinale bezala. Euskararen inguruan geroz eta interes ekonomiko gehiago sortu behar dira, jendeak euskararen premia sentitu be-

har du, horrexek erakarriko baitu euskarara. Eta, hizkuntza baten jabe egiten zarenean, hizkuntza horrek berak pentsatzeko era jakin bat ematen dizu, eta ez naiz alderdikeriez ari, herri ikuspegiaz baizik, gurean horren makala den herri ikuspegiaz. Euskararen borroka galduz gero, alegia, akabo, egin du gureak.

Euskarak duen indar hori al dago, zure ustez, euskararen aurkako eraso- soen sustrai-sustraietan?

Bai, noski. Begira zer gertatu zen *Euskaldunon Egunkariarekin*. *Euskaldunon Egunkaria* itxi zuten Madrilen hemen baino hobeto dakitelako zein den euskararen garrantzia, eta ez zutelako uste *Egunkariak* aurrera egingo zuenik. Urduri jarri ziren, eta zanpatu egin zuten. Hemen gerra kulturean gaude, eta gerra kulturea galtzen badugu gerra politikoa ere galduta dago, ondorio bezala.

ANBIZIO POLITIKORIK GABEA

Umetan etxean izan zenuen giroa irudikatuta, badirudi ezinbesteko patu halako batek eraman zintuela politikagintzara.

Familia abertzalean jaio nintzen, gerra aurreko ikastoletako umea naiz, euskaltzale eta abertzale porrokatu eta Tolosako alkate izan zen gure aita zena, Doroteo Ziaurritz Tolosako alkate eta burukide jeltzalearen besoetakoa nintzen... Giro horretan hezi nintzen gerra piztu eta beste aldera joan behar izan genuen arte. Ha-



zi, han hazi ginen, giro horretan-txe. Guretzat, Jose Antonio Agirre orduan Frantziako Errepublikako presidente zen Albert Lebrun-aren parekoa zen. Izan ere, ez geneukan alderdi zentzurik; herriaren, nazioaren, estatuaren zentzua geneukan. Besteak beste, Agirreraren gobernu hark armada izateak eta gerran gure ontzia eta gudaria ikusi izanak ere laguntzen zuen nazio zentzu hori edukitzea. Halaxe itzuli ginen Euskal Herrira urte batzuk geroago. Kimiko egin nintzen ogibidez, historialari afizioz, eta politikagintza bide naturala izan zen niretzat, nahiz eta orduan ez genuen ulertzen politika orain ulertzen den bezala.

Zerk bereizten ditu bi ikuspegi horiek?

Nagusiki, oraintxe aipatu dudanak, alderdi zentzua izan beharrean nazio edo herri zentzua izateak. Eta, gero, nik beti pentsatu izan dut politikak zerbitzu kutsua duela, politika ez dagoela politikariaren zerbitzura, alderantziz baizik. Politikari mota jakin bati buruz esaldi oso adierazgarria entzun nuen behin: "Hainbat politikari pertsona zintzoak direnik ezin ukatu, ez baitute aurrekari penalik; profesionalik ere ez, ordea". Gaurko klase politikoa, gaur klase politikorik badago, jende gehiegik ahaztu du politika zerbitzua dela. Zorionez, jende fin asko dago oraindik baina, maizegi, politikariak herriarengandik urruntzen dira, errealitatea beraiek direla sinetsita. Nik uste dut politika ez dela hori, eta 1980 urteko Eusko Jaurlaritza hartan ere ez zen hori politika. Gobernu hura nazio ikuspegiz osatu zen. Hamairu sailburuen artean, baginen abertzaleak eta alderdi-koak ginenak eta baziren abertzale ez zirenak, nahiz eta, gero, bat edo beste abertzaletu. Argi geneukan Garaikoetxea zela lehendakaria, eta berak, hainbat alorretarako, jende konpetentea izendatu zuen, teknikari oso onak. Bazegoen, nolabait esateko, gestiorako jendea eta irudi politikoa ematen genuen jendea, guztiak ere politikari amateurak ginela kontuan hartuta betiere. Batzuk ikusten genuen Eusko Jaurlari-

“ Beti pentsatu izan dut politikak zerbitzu kutsua duela, politika ez dagoela politikariaren zerbitzura, alderantziz baizik ”

“ Izan ditudan ardura politikoko guztietan zein izan dudana gogokoena? Donostiako Alkatetza. Han nintzen jaun eta jabe, eta beti izan dut gustuko nahi dudana egitea ”

tza hartan Agirrearenaren segida. Gerora ikusi da, ordea, zirkuntantziak ez zirela 30eko hamar-kadakoak bezalakoak izan, eta orduko ilusio asko zapuztu egin dira, besteak beste Euskal Herria behar bezala ezagutzen ez genuelako eta okerreko kalkulu asko egin genituelako.

Sailburu, legebiltzarkide, Donostiako alkate... Bide luzea egin duzu politikagintzan. Zein postutan ibili zara erosoan?

Oso esperientzia desberdinak izan dira, interesgarriak denak, baina gehiago non disfrutatu dudan esan beharko banu Donostiako Alkategoa hautatuko nuke. Jaurilaritzan lehendakariaren zerbitzariak ginen, eta ohore handia zen hura garai hartan Garaikoetxeak zuen prestigioa ikusita. Bide batez, esan beharrekoa da telebistak asko zor diola Garaikotxeari... Nahi genuena edo ahal genuena egiten uzten zigun, baina jakinik azken batean ardurak eta erronkak bereak zirela. Legebiltzarrean, berriz, alderdiak esandakoaren arabera botoiari jotzea zen lan nagusia. Erabakiak alderdian hartzen ziren, eta gure lana erabaki haien araberrako botoa ematea zen. Bitan alderdiaren kontrako botoa eman nuen, eta ez zitzaion batere gustatu... Donostiako Udalean, berriz, nerone nintzen jaun eta jabe, eta niri asko gustatu izan zait beti nahi dudana egitea. Aitortu beharra daukat, ordea, gerora ikusi dudala ez nintzela izan

donostiar guztien alkatea, eta ez nahi ez nuelako, baizik eta Donostian bazirelako niretzat erabat arrotzak ziren munduak. Ni Donostiako burgesiaren alkate izan nintzen, hura zelako nire mundua baina, hala ere, asko disfrutatu nuen eta gauza onak egin zirela ere uste dut.

Nahi duzuna egitea ez ezik, nahi duzuna esatea ere gogoko duzu. Hainbat unetan batere ortodoxoa ez izan arren, betiko alderdian jarraitzen duzu. Ez al duzu arazorik izan?

Egia da, nik esandakoak askotan ez dira oso ortodoxoak izaten, eta isildu ere ez naiz egiten, baina ez naiz arriskutsua, ez baitut sekula anbizio politikorik eduki. Eta alderdi guztietan, argi uzten baduzu ez diozula inori posturik kendu nahi, erabateko askatasuna duzu, benetan. Nik beti ulertu izan dut alderdia tresna bat bezala, ez dogma bat bezala edo erlijio baten modura. Gure belaunaldian asko izan gara horrelakoak. Postu publikoetan egon garenean ahal duguna egin izan dugu eta, hori amaitutakoan, ondo eginak ondo hartu, gaizki eginak barkatu eta kito.

Karguen nostalgiarik ez duzu, hortaz.

Bat ere ez. Nire bizitzan gauza asko egin ditut eta lan askotan ibilia naiz, baina badaukat gauza bat: zerbeitz bukatutakoan, bukatu da eta ahaztu egiten dut, ez naiz nostalgian bizi. Telebista egin behar genuen, eta egin ge-

nuen. Askoren artean egin genuen, lehendakaria buru genuela. Bada, hura ere egin zen eta listo. Ahaztu ez dut sekula ahaztuko, esperientzia oso interesgarria izan baitzen, baina nire lana bukatutakoan ez nuen muturra sartzen jarraitzeko batere gogorik izan. Beste zerbaitetan nengoen, hartan murgilduta eta aurrekoak atzean utzita.

Moldatuko al litzateke Ramon Labaien egungo politikagintzara?

Politikan jarraitzen dut, dena baita politika, baina ez dut uste egungo administrazioa moldatuko nintzatekeenik. Aurreneko Eusko Jaurlaritzan egotea pribilegio bat izan zen. Ez zegoen aurrekaririk, baina traba askorik ere ez zegoen, dena zegoen egiteko, dena zen erronka eta hutsetik abiatzea. Gaurko administrazioak, berriz, aspaldian dauka kortsea jarrita. Administrazioak bere arauak ditu, eta beharrez-

koak dira, baina gauzak oso geldo joaten dira, geldoegi nire izaerarako. Nik oso maite dut Miren Az-

karate sailburua, eta gauzak oso ondo egiten ari dela iruditzen zait, baina nik ez dut horretarako balio.


ADIN BAKOITZAK DU BERE A

Aspaldi honetan ez duzu kargurik, baina ezin esan erretiratuta zaude-nik. Batere nostalgiarik gabeko bizi-tzaren aro honetan, zertan ematen duzu denbora?

Nagusiki, denboraz disfrutatzen ematen dut denbora. Adin bakoitzak ditu bere abantailak, eta nik dudan adin honen abantaila denbora da. Lanean jarraitzen dut oraindik, aholkulari gisara bada ere. Beti egon behar duzu behar zaituenaren esanetara, baina ordutegi aldetik askatasun handia ematen duen lana da. Zerbait sortzen bada eta lanera joan behar baduzu, suerte txarra, baina bestela denbora zure kabuz antolatzeke modua ematen du, eta nik denbora hori gogoko ditudan gauzak egiteko erabiltzen dut. Alderdiaren ba-

r r u a n
d u -

“ Alderdi guztietan, argi uzten baduzu ez diozula inori posturik kendu nahi, erabateko askatasuna duzu, eta nik ez dudanez sekula anbizio politikorik izan askatasuna izan dut”



“Denboraz disfrutatzin ematen dut orain denbora. Adin bakoitzak ditu bere abantailak, eta nik dudan adin honen abantaila gustatzen zaizkidan gauzak egiteko denbora edukitzea da”

“Soldaduak egiteko patxada behar da. Donostiako alkate nintzeta egin nituen soldadu prusiar guztiak desastre hutsa ziren anatomikoki. Hura ez zen soldaduak egiteko momentua”

gun kolektiboaren artikuluak idazten ditut, Ollaurin daukadan baratzen aritzen naiz, hama-bostean behin Euskadi Irratira joaten naiz Imanol Muruarekin batera, pintatzen dut, bidaiatzen dut, soldaduak egiten ditut...

Izen handikoak dira zeuk egiten dituzun berunezko soldadu txikiak. Noizkoa duzu zaletasun hori?

Umetakoa. Guk, umetan, egiazko soldaduak ikusi genituen, eta soldaduak gerran. Aurrenekoak, Tolosan bertan, gerra hasi zenean. Gero, Donibane Lohizunera joan ginenean, hura ere soldaduz beteta zegoen. Bazegoen Pergolan eskapatea soldadu txikiz beteta zeukan denda bat, eta nik orduak ematen nituen sudurra eskapatean jarri eta soldaduei begiratzen. Nire gurasoek ez zuten txanponik ere, eta ez zegoen soldaduak erosteko modurik. Hamabi-hamairu urteko nintzela, kartoizko soldaduak egiten eta errekortatzen hasi nintzen, eta historia militarren inguruko interesa ere orduekoa dut. Hor sartu nintzen, uniformeak nola sortzen ziren jakin nahirik, zer munizio zuten, zergatik ziren ziren bezalakoak eta, azkenean, eskulturan eta pinturan ere sartu nintzen. Aurreneko tailerra 1961 urtean sortu nuen Donostian. Hasieran Hotel de Londresen zegoen arotz artista batek egiten zizkidan tailuak, berunezko figurak beste batek eta ni ikerketaz eta pinturaz arduratzen nintzen. Gobernura joan nintze-

nean tailerra sakanabatu zen erabat, eta Donostiara itzuli nintzenean hasi nintzen berriro ere pixka bat. Baina alkate nintzela egin nituen soldadu prusiar guztiak anatomikoki desastre hutsa izan ziren. Ez zen momentua. Ikusten da horretarako patxada behar dela, tailerrean egon behar duzula liburuz inguratuta, fraile baten modura.

Fraile baten modura ez bada ere, azken urteetan heldu diozu berriro soldadugintzari, eta gaiari emandako web gunea ere baduzu. Zerbait berria ekarri al dizu teknologia berrietara irekitze horrek?

Momentu honetan soldadu napoliarrak egiten ari naiz, Fernando IV.aren garaikoak. Web gunea, berriz, duela gutxi jarri dut. Gauza horietan esku onekoa den semeak lagundu dit, baina mantendu-eta neronek egiten dut, eta saldu ditut soldaduren batzuk web gunearen bidez. Horrez gain, Internet izugarri interesgarria da dokumentazioa lortzeko, harremanetarako, kontaktuak egiteko. Hain zuzen, uste dut teknologia berriek laguntza handia eman diezaieketela euskarari eta gainetarako hizkuntza txikiei. Salbazioa bide horretatik etorriko delakoa nago.

Etorkizunekoak baino iraganekoak izan ditugu orain artekoan hizpide, aspaldikoak ez izan arren askorentzat ezezagunak izango direnak, seguruenik. Zeu historialari izanda, ez al zaitu kezkatzen dugun memo-

**ria historiko motzak? Beste horren-
beste gertatzen al da gainerako
herrietan ere?**

Ez, beste herri batzuetan ez da horrenbestekoa memoria falta, eta hor guk arazo larria dugu. Herri guztietan arduratu da norbait historia ofiziala idazteaz. Normalki zaborra izaten da, baina hori da eskoletan irakasten dena eta azkenean jendeari buruan sartzen zaiona. Eta memoria historikoa hori da, Espainia Errege Katolikoek unifikatu zutela pentsatzea, gezurra izan arren. Uste dut, gure kasuan, azken urteotako akatsa izan dela hori. Denbora soberan izan dugu, baina ez da egin, eta ez

dugu idatzi gure historiaren geure interpretazioa. Liburuak, testuak eta interpretazioak egon badaude, baina ez dugu gure testu bateratua prestatu eta, horren ondorioz, ez gara gauza izan oraindik gure historia mitifikatzeko. Non sortu zen egungo Frantzia? III. Errepublikan. Eta nola sortu zen? Eskola errepublikanoko maisuen eskutik. Guk ez dugu kontzeptu hori, eta akats larria iruditzen zait.

Eta zorerrek, pentsatu al duzu inoiz bertatik bertara ezagutu duzun historiaz eta istorioez idaztea?

Ari naiz, ari naiz... □



Telebista egitea ez da horren zaila



Luis A. ARANBERRI, 'AMATIÑO'

1983an izendatu zuten ETBko informatibotako buru, nahiz eta prozesuaren hasieratik izan alor horren ardura.

Bitan izendatu dute ETBko zuzendari: 1984an eta 1991ean.

“Ramon Labaien sailburu zela, Euskaraz zuzendari nintzen ni Kultura Saillean, eta telebistaren inguruko aurreneko lanak, informatiboak antolatzera bideratuak, hantxe egin nituen, Garai-koetxearen eta Labaienen esanetara. Nire arduraz nagusia hori izan zen, beraz. Halako batean, honako enkargua eman zidan Labaienek: ‘Bilatu itzatzu lanean dauden kazetariak, batere segurua ez den lan berri batean hasteko duten lanpostua uzteko prest daudenak’. Halaxe osatu zen 1982ko udan Hanburgera abiatu zen kazetari taldea. Talde haren osaketak, hain zuzen, agerian uzten du mila bider argitzen saiatu naizen kontu bat: ETBren eta euskararen arteko hasiera bateko lotura. Taldean baziren kazetari euskaldunak, baina euskaraz lan egiteko gai ez zenik ere bazen. Izan ere, telebista mistoa zen hasierako egitasmoa, elebiduna. Hanburgen egin genituen informatibo guztiak gaztelaniaz egin genituen, eta hona itzulitakoan ere gaztelaniaz egiten genituen ‘O zenbaki’tzat har litezkeen saioak. Informatiboak euskaraz egi-

tea nahiko berandu hartutako erabakia izan zen, egiazkoekin hastear ginelarik hartu zena. Eta nik uste dut bete-beteaz asmatu zela, esperientzia guztien arabera argi baitago hedabide elebidunek porrot egiten dutela. Gaur egun, Euskal Telebista da munduan dagoen telebista elebidun bakarra, bi hizkuntzetan eta bi kateetarako lan egiten duten kazetariak dituenen. Belgikan, esaterako, badute telebista flandesaraz eta frantsesez, baina guztiz independenteak dira, ate desberdinetatik sartzen dira langileak eta itzultzaileak ere ez dituzte konpartitzen. Hori argituta, esan beharra daukat aurreneko urratsak oso konplikatuak izan zirela. Nazioarteko informazioz ere ez genuen jasotzen, bideoak erosi behar genituen nazioarteko berriak emateko... Hala eta guztiz ere, telebista desmitifikatu genuela uste dut. Orduan Televisión Española zegoen soilik, eta telebista erabat mitifikatuta geneukan. Guk frogatu genuen, ordea, gogoia eta ilusioa edukiz gero posible dela 40 lagun hasiberriren artean telebista bat kalera-tzea, telebista egitea ez zela horren zaila”.

**Martin IBARBIA**

ETBko Programazio Zuzendari 1981etik
1985era.

Hik ba al dakik telebisio bat egiten?

“Ramon Labaienen deia jaso nuenean, irudiaren alorrean zinemaren ingurukoak ziren batik bat nire kezakak. Euskara ikasi berritan, mundu horretan nenbilen, zine-klubetan euskarazko saioak egiten-eta. Kultura zinegotzi ere banintzen Beasaingo Udalean. Argi utzi nion Labaieni telebistaz askorik ez nekiela, baina dei hura aurretik behin baino pasatzen ez zaizun tren hori iruditu zitzaidan, eta hantxe agertu nintzen Lakuan. Han ezagutu nituen Josu Zubiaur, gure jefe izateko ekarria, eta alde teknikoaz arduratzen ziren J.J. Azurza eta Eugenio Iriondo. Aurreneko bilera haietan, maiz galdetzen genion elkarri ‘hik ba al dakik telebisio bat egiten?’. ‘Ez, baina egin egin behar diagu’ zen ohiko erantzuna. Halaxe hasi ginen. Niri egokitu zitzaidan atalean, hemendik at mundu horretan egiten zena ezagutzea izan zen aurreneko egitekoa. Horren ideiarik ere ez geneukan eta, artean, egin nahi zen telebistarako eredu argirik ere ez, nahiz eta argi egon informatiboekin batera haur eta gazteei zuzendutako saioek osatuko zutela programazioaren ardatz nagusia. Makina bat bidaia egin genituen Zubiaurrek eta biok atzerrira,

erosteko zerbaiten bila. Nor ginen eta nondik gentozen argitzea ere ez zen erraza, eta aurkezpen moduko liburuxka bat eta Estatutuaren ingelesezko itzulpen bat hartuta korritu genituen bazterrak. Dirua ere askorik ez geneukan; gehienez ere minutu bakoitzeko 10 dolar ordaintzeko adina. Prezio horretan, noski, ate asko itxi zitzaizkigun. Geroxeago katalanekin batera erosten hasi ginen, eskaintza 25 dolarrerara igotzeko modua izan genuen eta hobeto moldatu ginen, nahiz eta horrek hautatzeko askatasuna kendu. Oro har, gauza txukun ugari ekarri genuen telebistarako, eta luze gabe bertako produkzioen batzuk ere jarri ziren abian. Ekiteko grina eta gogoia ziren nagusi garai haietan, baina arazoak ere izan genituen, noski, kanpoan zein barruan. Labaien bera ere ez zen jefe erraza. Ezinezkoa zen nondik aterako zitzaizun asmatzea, baina guk ez geneukan zerbait zeukan berak, besteak beste: politika zer zen bazekien, artista zen mareatzen... Urteak pasatu arren, oraindik ere izugarri maitatzen dut, eta askotan galdetu izan diot nire buruari zergatik estimatzen ote dudan horrenbeste askotan seko ernegatu ninduen pertsona. Miresten dudalako izango da, seguruenik...”

Urruntasun ideologikoak ez du oroitzapen atsegina ezabatu



Jose Antonio MATURANA

Euskal Sozialistak-Socialistas Vascos taldeko Legebiltzarkide 1980tik 2001era.

EITBko aurreneko Administrazio Kontseiluko kide, horren buru ere izan zen.

“EITBren hasierako garai haietan gauzak oso azkar egin ziren, azkarregi, batere eztabaida politikorik gabe eta gardentasunik gabe. Egia da lehentasuna abiatzea zela, baina uste dut gauzak alderdi ikuspegitik egin zirela, ez telebistak izan behar zuen zerbitzu publikoaren ikuspegitik. Sozialistok, esaterako, uste genuen RTVEren legearen kopia bat zen EITBren legea ez zela egokia zerbitzu publikoa bermatzeko, eta alternatiba bat proposatu genuen, baina gauza nahiko deigarri bat gertatu zen... Garai hartan, nire taldean, neroni nintzen hedabideen inguruko gaietarako bozeramailea. 1982ko udaberrian ezkondu egin nintzen, eta hamabost eguneko eztei-bidaia egin nuen. Bada, itzuli nintzenerako, EITBren sorrera ahalbidetu zuen legeak egina

zuen egin beharreko bidea Legebiltzarrean. Horrelako abiadurarik ez dut nik askotan ikusi! Administrazio Kontseiluak ere ez zuen askorako balio, testimoniala zen soilik, eta oposizioko alderdietako ordezkariok ez genuen erabaki garrantzitsuetan esku-hartzeko aukera handirik. ETB, hortaz, ideologia abertzalearen zerbitzura jarri zen, eta nik uste dut orduan egin ez zen eztabaida irekita dagoela oraindik, egiteke. Hasierako garai haietan eztabaida ugari eta oso gogorrak izan nituen Ramon Labaienekin. Hala ere, ideologikoki elkarrengandik kilometro askora bagaude ere eta zenbait alorretan gure jarrekar kontrakoak badira ere, oroitzapen atseginak ditut. Gizon oso argia zen eta, askorako balio ez bazuen ere, posible zen harekin hitz egitea”.


Andoni AREIZAGA

EITBko zuzendari nagusia 1982ko
abendutik 1985eko irailera

Kontu zorrotzak eta eztabaida latzak

“EITBra heldu nintzenerako, nire aurreko Josu Zubiaurren eta haren taldearen eskutik eginda zeuden telebista martxan jartzeko egin beharrekoak. Nik, hain zuzen, 1982ko azaroan jaso nuen Ramon Labaienen deia, EITBko zuzendari nagusi izan nendin proposatuz. Interes handiz jarraitzen nituen ordura arte proiektuaren inguruan zabaltzen ziren apurrak, batez ere DEIA n Ramon Labaienen eta Eugenio Ibarzabalen artean izan zen eztabaida mamitsua, ETB martxan jartzeko zegoen presari buruzkoa. Zeregin haietan ibili ginen guztiok bezala, esango nuke presazko dinamika hark bultzatuta aritu ginel, ilusio handiz, lanerako baldintza kaskarretan askotan, baina sekulako gogoz. Oso gogorra izan zen, baina uste dut Garaikotxe lehendakariak eta Ramon Labaien sailburuak bete-betean asmatu zutela presazko bidea hartuta. Hasierako telebista hura ez zen inolaz ere nahi eta behar genuena, baina han zegoen. Presak, noski, era askotako ondorioak

izan zituen. Nire ardura nagusietako bat kontuen ingurukoa zen, eta profesionalki ere mundu horretakoa nintzen, ez hedabideen mundukoa. Jakina da Euskal Telebista aurrekontu formalik gabe sortu zela, eta gogoan dut Pedro Luis Uriarte Ogasun eta Ekonomia sailburuak esan zidana: ‘Adi, medio horrek arrisku handia du eta diru kontuetan’. Sail hark berak oso kontrol zorrotzak ezartzen zituen, ez zigun sosik ematen dena behar bezala aurkezten ez bage-nuen. Hortaz, hasierako egoera nahasia izan arren, diruak zorrotz kontrolatu ziren eta, alde horretatik, oso lasai alde egin nuen EITBtik kargua utzi nuenean. Orduko ehunka anekdota eta pasarte ditut gogoan, oso atseginak asko, baina baita momentu bereziki latzak ere. Azkenean Miramonen ezarri zen ekoizpen-zentroaren kokapenari buruzko eztabaidak, esaterako, oso gogorrak izan ziren. Telebistaren aurreneko urteetan jende askok asko sufritu zuen, eta hori ere ezin da ahaztu baina, azkenean, egin zen egin behar zena”.

Kezkak bai, baina telebistakoak baino arinagoak



Jose Mari OTERMIN

Euskadi Irratiak izan zuen aurreneko zuzendaria, 1982an hura abian jarri zuena.

“**A**urrekaririk ez zeukan telebistaren aldean, euskarazko irratiak bazuen eskarmentua 1982ko azaroan Euskadi Irratia emititzen hasi zenerako. Eusko Jaurlaritza osatu aurreko Eusko Kontseilu Nagusiak eginak zituen urratsen batzuk eta, harekin egindako akordioa tarteko, sei orduko euskarazko programazioa zeukan arratsalde partean Herri Irratiak. Ohitura bazegoen, eta euskaraz lan egiten zuen jendea ere bai. Hala ere, gauza kurioso bat ari zen gertatzen. Estatua autonomia erkidegoen artean boterea banatzen ari zen bitartean, kontzentrazioa bultzatzen zen hedabideetan. Askok izango dute gogoan Donostia eta Loiolako Herri Irratiaren aldeko manifestazio jendetsua... Euskal irrati autonomoaren beharra somatzen zen, beraz. Ni 1982ko Aste Santuan deitu ninduen Ramon Labaienek Euskadi Irratia martxan jartzeko, eta askatasun osoa izan nuen horretarako. Irrati normal bat egin nahi genuen, gai guztiak landuko zituen, eta alde horretatik arazoren bat izan genuen. Euskarazko irratiak formatu batzuetan bazuen eskarmentua, baina beste batzuetan ez. Informa-


zioa goitik behera euskaraz lantzen, esaterako, ez genekien, eta kiroletan ere antzeko zer-bait gertatzen zen. Hemengo kirolak ematen ziren euskaraz, baina futbola edota txirrindularitza ez. Entzuleak ere ez zeuden dena euskaraz entzutera ohituta. Profesionalen aldetik, berriz, ez genuen arazo handirik izan. Ondo prestatutako jendea zegoen, aurretik ere euskaraz lan egindakoa. Kezkak bagenituen, noski, baina baita abantaila handiak ere telebistaren aldean. Zortzi orduko programazioarekin hasi ginen, eta ametsetan ere ez zitzaigun orduan okurritzen 24 orduz emititzeko gauza izango ginenik. Aurrenekoz aireratu ginenean gogoan dut nola deitu zion Ramon Labaienek Garaikoetxea lehendakariari. ‘Entzun, entzun...’, esaten zion. Gasteizen, baina, ezin izan zuten estreinako saio hura entzun. Telebistarena baino lasaiagoa izan zen gure sorrera eta, elkarren artean inolako harremanik ez geneukanez, kanpotik ikusi genuen harena, belaunaldi oso baten ametsen gauzatzea. Agian, hasiera-hasietarik bereizita egoteagatik du hedabide bakoitzak bere nortasuna, eta ondo ikusten dut nik hori”.

Egilearen soslaia

Nerea AZURMENDI ZABALETA

Kazetaria. DEIA egunkarian hasi zen kazetari lanetan 1982an. 1987tik 1991era Donostiako Udaleko prentsa arduradun izan zen eta, 1991etik 1995era, bere kabuz jardun zuen kazetaritzan, hainbat hedabiderekin kolaboratuz eta zenbait erakunderen komunikazio aholkulari gisara. 1995etik 1999ra Euskadiko Gizarte eta Ekonomia Arazoetarako Batzordeko prentsa arduradun izan zen eta, 1999tik 2003ko abendura arte, ZABALIK astekariko zuzendari izan da. Egun, bere kabuz dihardu kazetaritzan eta irakasle da Deustuko Unibertsitateko Giza Zientzien fakultateko Komunikazio atalean.

Rikardo Arregi Kazetaritza Sariko epai-mahaikide izan zen 1993/94 eta 1994/95 urteetan.



Gurasoek erakutsiari jarraituz,
Bakerako biderik zuzenena
Kultura dela erakutsi diguzu.
Zorionak, Ramon.

whatever you say, Basque
esanak esan Euskara
Digas lo que digas Euskera
Egal was du sagst sag es auf baskisch
Quoi que tu dises Euskara



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Viceconsejería de Política Lingüística